

MINTZANET.NET

Munduko edozein zokotatik euskarazko mintzapraktikak egiteko ataria

Geografiak ezarzen dituen mugak hautsi, eta Euskal Herrian horren hedatuta dauden euskarazko mintzapraktikak edozein lekutatik eta doan egitea bideratzen duen egitasmoa da Mintzanet. «Azken batean, proiektua Mintzalagunaren osagarri bezala sortu da. Hasieratik ikusi zen euskaltegia ezinbestekoa zela jendea euskalduntzeko, baina gero, jendeak herriz herri ez badu praktikatzeko aukera, ez da euskaraz bizi, eta orduan, ikasitakoa galdu egiten du askotan, batez ere eremu euskaldun batean bizi ez bada» azaldu du Ritxi Lizartzak, zerbitzu publiko hau kudeatzen duen Maramara enpresako zuzendariak.

Mintzaneten bi erabiltzaile mota daude: bidelariak eta bidelagunak. Lehenak, euskaraz hitz egin nahi bai baina euren inguruan horretarako inor ez dutenak edota gehiago hitz egin nahi dutenak dira. Bigarrenak, bidelagunak, euskara jatorrean hitz egiteko gauza izan eta borondatez euskaldun berriei hitz egiteko denbora eskaini nahi dietenek osatzen dute.

Elkarren arteko mintzapraktikak egiteko, Internetek eskaintzen dituen bitartekoak erabiltzen dituzte. Mintzanet.net orrialdean sartu, izena eman eta mintzapraktikak zein egun eta ordutegitan egin nahi dituen zehazten du erabiltzaile bakoitzak. Behin bidelari-bidelagun bikoiteak osatuta, zehaztutako ordutegian eta Skype bidez egiten dira mintzapraktikak, ordu erdiko saioetan banatuta.

Elkarren arteko mintzapraktikak egiteko, Internetek eskaintzen dituen bitartekoak erabiltzen dituzte. Mintzanet.net orrialdean sartu, izena eman eta mintzapraktikak zein egun eta ordutegitan egin nahi dituen zehazten du erabiltzaile bakoitzak. Behin bidelari-bidelagun bikoiteak osatuta, zehaztutako ordutegian eta Skype bidez egiten dira mintzapraktikak, ordu erdiko saioetan banatuta.

BERREHUN ERABILTZAILE

Egitasmoa orain urte erdi aurkeztu zuten, Euskararen Eguna-ren kariatara, eta martxan daraman urte erdiaren balantzea «oso ona» dela dio zerbitzuaren kudeatzaile lanetan dabilen Cristina Tapiak: «Erantzun ona izan duela uste dugu, berrehun pertsona inguruko masa kritikoa dugu». Izena bidelagun baino bidelari gehiagok ematen dutela dio Tapiak, «eurentzat euskaraz aritzeko sekulako au-

 **EUSKARA /** amalur.artola@gaur8.info

Edozein lekutan egonda ere euskarazko mintzapraktikak egitea bideratzen duen ataria da Mintzanet. Martxan daraman urte erdian berrehun erabiltzaile izatea lortu du eta, epe laburrera begira, plataforma propioa eta mugikorrerako aplikazioa sortu eta proiektuaren iraunkortasuna bermatzea izango ditu helburu.



Goian, Kike Amonarriz bere bidelagun batekin berriketan, Donostiako Mintzodromoan egindako saio batean. Behean, Mintzanet.net-eko txapak Ibildaldian.
MINTZANET.NET

kerak baita». Kopuru osoaren %30 bidelagunak direla eta %70 bidelariak kalkulatzeko dute eta, alde horretatik, «gure bidelagunak oso aktiboak eta majoak» direla dio Tapiak: «Elkarrizketak banan-banan daude ikusita, eta gure bidelagunetatik asko bi pertsonarekin aritzen dira, gaur batekin eta bihar bestearekin, hartara jende gehiagok izan dezaten euskaraz aritzeko aukera».

Euskaraz mintzatu nahi dutenei begira, horietatik %15 atzeritarrak aritzen direla dio Tapiak. «Ez dira asko, baina oso aktiboak dira, eta gero eta gehiago daude», dio. Mintzakide hauek batez ere kontinente amerikarretatik aritzen dira (AEB, Txile, Argentina, Kolonbia...), «baina berriki Moskuko gizon batek eta Kaledonia Berriko emakume batek eman dute izena, biak euskal jatorrikoak. Batez ere ikasleak eta kanpoan lanean dabiltzanak dira, ez dutenak norekin euskaraz aritu».

Adinari dagokionez, batez ere 50 urtera bitarteko gazteak daukela nabarmendu du –gazteak 17 urte dituzte–, «baina badaude beste batzuk 75 urte inguru dituztenak. Horiek ez dira horren trebeak teknologiarekin, baina dagoeneko ikasi dute, eta jubilatuek denbora asko dutenez, hitz egiteko, laguntzeko eta ikasteko prest daude». Maiztasunari dagokionez, batez beste hilean bitan aritzen da jendea, baina bada astean hiru saio egiten dituenek ere.

Epe laburreko asmoak begira, komunikaziorako tresna gisa egun Skype erabiltzen badute ere, irailerako euren plataforma propioa sortzeko bidean direla azaldu du Lizartzak, eta, gaineratu duenez, ez da hori eskuartean duten egitasmo bakarra: «Webgunea egin dugu, gure plataforma propioa sortzen ari gara, telefono bidez praktikatu ahal izateko app bat ere egiten ari gara...». Urte hau «proiektua sendotzeko» erabiliko dutela agertu eta hainbat erakunderekin (Azkue Fundazioa, Jaurlaritza, UE-MA, EHU...) hitzarmenak sinatzen ari direla ere gaineratu du, «garrantzitsuena proiektuaren iraunkortasuna baita».